

Balio Proposamena

AktibatE!, Inklusioa eta ekarlana sustatzen duen enpresa da. AktibatE! Integrazteko arazoak dituzten pertsonentzat egokitutako eskolaz kanpoko jardueren zentroa da. Eskaintzen ditugun jardueren artean honako hauek daude:

-Atletismoa: Kirol honetan era guztietako atletek parte har dezakete maratoniak eta jaurtiketak egiteko eta abiadura-lasterketak egiteko ere. Dela gurpil-aulkiarekin, beren hanketan mugikortasunik ez dutenentzat, edo ikusmenean zailtasunak dituzten pertsonentzako bidea zaratarekin adierazten duten piloten bitartez.

-Boccia: Petankara antzeko kirola da bereziki paralisia duten pertsonentzako egokitua.

-Futbola: Oso kirol ezaguna da, 11 kirolariz osatutako taldeetan jokatzen da. Ez-gaitasun mota desberdinekin praktikatu ahal da guk egindako aldaketei esker adibidez soinua egiten duen pilota.

-Musika klaseak, piano, txirula eta gitarra klaseak hain zuzen, haur hezkuntzako adituek sortutako liburu eta teknika bereziekin, behar bereziak dituzten gazteentzat egokituak.



Gainera, gure enpresak zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen du bezero bakoitzarentzat. Gure zerbitzuak biztanleria-sektore baten beharrak asetzen ditu, eremu geografiko honetan ez daudelako gurea bezalako proposamen eskaintza askorik. Gainera, ez-gaitasun intelektuala edo fisikoa duten pertsonen bizimodua errazten dieten enpresa askotan ez bezala, eskaintzen dugun zerbitzuaren prezioa txikia da, gastuak ahalik eta gehien murrizten baititugu prezio baxuetan eskaini ahal izateko. Zerbitzu pertsonalizatu hori ikus daiteke, adibidez, irakasleek eta begiraleek ikasleei buruz hilero egiten dituzten txostenetan, gurasoek beren ikasketan nola eboluzionatzen duten eta beren taldeko besteekin nola erlazionatzen diren jakin dezaten.

Gure enpresaren ezaugarri garrantzitsua da beren ikastetxeetan isolatuta eta desberdin sentitzen diren haurrak elkartzen dituela, eta leku dibertigarri eta segurua ematen diela bizipenak eta sentimenduak partekatzeke.